



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP
2024/25

OHIKO DEIALDIA

PAU
2024/25

CONVOCATORIA
ORDINARIA



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

EUSKARA ETA
LITERATURA II

LENGUA VASCA Y
LITERATURA II

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Lehenbizi testu bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikita daude bi atal (A eta B)
 - A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 puntu guztira)
 - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
 - Gaia eta laburpena (1,5 puntu)
 - Hizkuntza (1,5 puntu)
 - B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 puntu guztira)
 - Iritzi-artikulua edo emaila (4 puntu)
 - Literatur testua (1 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP
2024/25

OHIKO DEIALDIA

PAU

2024/25

CONVOCATORIA
ORDINARIA



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION

EUSKARA ETA
LITERATURA II

LENGUA VASCA Y
LITERATURA II

Ondo haserretzearen artea

«Ez haserretu, ez kezkatu, ez egon triste...» emozioak dominatzea nahiko samurra da parekoaren azalean tentetzen direnean. Norberaren azalean, baina, azkura gehixeago sortzen dute. Haserrea, adibidez, erupzioan lehertzen den sumendia da norbere gorputzean. Eztarria sokaz estutzen du, sabelean ukabila iltzatu, burura igoarazten du taupada zaratsua. Haserrea sentazio gogorra da, zamatsua. Poltsikoak harriz beteta ibiltzea bezala da, presentzia etengabea buruan, pentsamenduak lokazten dituen zera likatsu bat.

Mundu honetatik joatea erabaki zuen lagun batek eta asko haserretu nintzen, gogor haserretu nintzen. Nire haserrearen lubakian, serio, kopetilun. «Erraza da haserretzea. Zailagoa da triste egotea», esan zidan ahots jakintsu batek. Ez nuen inoiz pentsatu haserretzea zaila edo erraza ote den. Baina bai, haserretzea ez da batere zaila.

Beharrezkoa omen da haserretzea. Hori diote psikologoek, mugak jartzeko balio duela. Desegokia, injustua, iraingarria... iruditzen zaizunaren aurreko erreakzio beharrezkoa omen da.

Aristotelesek esan zuen: «Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, maila zehatzean, une egokian, helburu zuzenarekin eta modu egokian, hori, egia esan, ez da hain erraza». Hemen ere, neurrian omen gakoa.

«Zergatik haserretzen gara hainbeste?», irakurri dut kezka hor barna, sare sozialetan. Haserrearen erresuma dira sare sozialak, anonimatoaren gozoan. Nago batzuk bizio hutsez haserretzen direla, droga horren mendeko bihurtuta. Ondokoak gaizki aparkatu duelako, udalak kalea itxi duelako konponketa batzuk egiteko, arrandegian ilara luzea dagoelako edota seme-alabari ez zaiolako tokirik egokitu musika-eskolan ordutegi jakinean. Beti haserre.

Haserretzea beharrezkoa da, jendea eta jendarte bizirik, adi, tenk mantentzeko modua da. Baina haserretik hanka altxa eta hurrengo eskailerara igaro beharra dago; eraikitzeko, deseraikitzeko, aurrera segitzeko edo zerotik hasteko. Haserretutako herritarrekin ezin herri bizigarrikeria eraiki.

Amagoia Mujika
Gaur8
(moldatua)

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A ATALA: IRAKURMENA ETA HIZKUNTZA (5 PUNTU)

A.1 ULERMENARI BURUZKO GALDERAK (2 puntu)

Aukeratu erantzun egokiena. Nahikoa da erantzun-orrian zenbakia eta letra adieraztea.

1. Testuaren arabera, ...
 - a) Errazagoa da norberaren emozioak menderatzea, beste inorenak baino.
 - b) Errazagoa da beste inoren emozioak menderatzea, norberarenak baino.
 - c) Zaila da emozioak menderatzea: bai norberarenak, bai inorenak.
 - d) Erraza da emozioak menderatzea: bai norberarenak, bai inorenak.
2. Idazleak dioenaren arabera, ...
 - a) Haserrea, besteak beste, emozio gogorra, astuna eta itsaskorra da.
 - b) Haserrea emozio arina da, eta erraz saihesteko modukoa.
 - c) Haserrea eta tristezia erraz nahasten dira.
 - d) Haserreak eragin fisiologikoak ditu, hala nola azkura.
3. Testuaren arabera, ...
 - a) Psikologoek diote zailagoa dela haserretzea, triste egotea baino.
 - b) Psikologoek diote haserretzea ez dela batere zaila.
 - c) Psikologoek diote beharrezkoa dela haserretzea.
 - d) Psikologoek diote haserrea mugagabea izan daitekeela injustizien eta irainen aurrean.
4. Idazlearen esanetan, ...
 - a) Anonimotasuna lagun, haserrea erabat hedatuta dago sare sozialetan.
 - b) Sare sozialetako anonimotasunak eragotzi egiten du haserrea.
 - c) Jendea errazago haserretzen da sare sozialetatik kanpo, sare sozialetan baino.
 - d) Eguneroko bizimoduan, haserretzeko arrazoi gutxi aurkitzen ditu jendeak.
5. Testuaren arabera, ...
 - a) Haserretzea eta haserrean gelditzea beharrezkoa da.
 - b) Herritar haserreak lagungarri dira bizikidetza eraikitzeko.
 - c) Aurrera egiteko, ezinbestekoa da haserrea gainditzea.
 - d) Haserrea lagungarria da eraikitzeko, baina ez hainbeste deseraikitzeko.

A.2 GAIA ETA LABURPENA (1,5 puntu)

Testuingurua

Lagun artean eztabaidan ari zinetela, beste lagun bat heldu da zuengana: eztabaidagai duzuen testua ez duela ezagutzen esan dizue, eta zeri buruzkoa den azaltzeko eskatu.

A.2.1 Adieraz ezazu, zure hitzekin eta gehienez esaldi batean, zein den irakurritako testuaren gaia. (0,5 puntu)

**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A.2.2 Egin ezazu, **labur eta testu josian**, “Ondo haserretzearen artea” izeneko testuaren laburpena (**gehienez 60 hitz**). (1 puntu)

A.3 HIZKUNTZA (1,5 puntu)

Testuingurua

Irakurritako eta eztabaidagai izandako artikulua berebiziko interesa sortu du zugek, eta zeuk ere gaiari buruz idaztea erabaki duzu; izan ere, zure esperientzia eta ikuspegia beste pertsona batzuentzat lagungarri izan daitezke. Testua ekoizteko prestaketa-lana egin behar duzu; zehazki, baliabide gramatikalak eta lexikoak landu behar dituzu.

A.3.1 “Ondo haserretzearen artea” testuko ideia batzuk interesgarriak iruditu zaizkizu, baina ez dituzu beren horretan eman nahi: eman itzazu azpiko pasarteak zure hitzak erabiliz. (0,5 puntu)

- a) “Mundu honetatik joatea erabaki zuen lagun batek eta asko haserretu nintzen”.
- b) “«Erraza da haserretzea. Zailagoa da triste egotea», esan zidan ahots jakintsu batek”.
- c) “Desegokia, injustua, iraingarria... iruditu zaizunaren aurreko erreakzio beharrezkoa omen da”.
- d) “Nago batzuk bizio hutsez haserretzen direla”.
- e) “Haserretzea beharrezkoa da. Baina haserretik hanka altxa eta hurrengo eskailerara igaro beharra dago”.

A.3.2 Halaber, nahiago duzu “Ondo haserretzearen artea” testuko hitz batzuk ez errepikatu, testua pertsonalagoa izan dadin. Horretarako, sinonimoen zerrendatxo bat osatu behar duzu. Eman honako hitz hauen sinonimo bana, edo azal ezazu, zure hitzen bidez, hitz bakoitzaren esanahia: (0,5 puntu)

- a) *kezkatu*
- b) *dominatzea*
- c) *zamatsu*
- d) *triste*
- e) *tenk*

A.3.3 Ondoren *Euskaltzaindiaren hiztegi*ko bost definizio dituzu, eta horiei dagozkien hitzak aurkitu behar dituzu Amagoia Mujikaren “Ondo haserretzearen artea” izeneko testuan: (0,5 puntu)

- a) “Esku itxia”.
- b) “Bihotzaren eta zainen aldizkako uzkuertze eta hanpatze higadura”.
- c) “Lokatzez bete, lokatzez zikindu”.
- d) “Zulo luze eta meharra, alde bietara ezponda utziz, lurrean egiten dena”.
- e) “Leku agerian dagoen jendea; jendea, jende multzoa”.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

USaP

2024/25

OHIKO DEIALDIA

PAU

2024/25

CONVOCATORIA
ORDINARIA



EUSKARA ETA
LITERATURA II

LENGUA VASCA Y
LITERATURA II

B ATALA: TESTU-EKOIZPENA (5 PUNTU)

B.1 Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1.1 edo B.1.2) (**gutxienez 180 hitz**) (4 puntu)

B.1.1 IRITZI-ARTIKULUA

Amagoia Mujikaren artikulua irakurrita, Aristotelesen aipuak zer pentsatua eman dizu: «Edonor haserretu daiteke, hori oso erraza da. Baina pertsona egokiarekin haserretzea, maila zehatzean, une egokian, helburu zuzenarekin eta modu egokian, hori, egia esan, ez da hain erraza». Ideia horiei tiraka, zure herriko aldizkarian iritzi-artikulu bat idaztea bururatu zaizu, zeure esperientziatik abiatuta.

B.1.2 EMAILA

Haserre xamar zaude orain dela gutxiko gertakizun baten ondorioz: ezinegonez zaude azken egunotan eta, barrenak askatzeko, lagun min bati egoeraren berri ematea erabaki duzu. Laguna, baina, ez duzu berehalakoan ikusiko eta, gehiago itxaron ezinik, emaila bidaliko diozu. Gogoratu, mezu elektronikoa bat idazteko, igorlea, hartzailea eta gaia zehaztu behar dituzula.

B.2 Ondoren, Estitxu Arozena bertsolariaren bertso bat duzu. Azaldu bere mezua labur, eta egin lotura mezu horren eta “Ondo haserretzearen artea” testuko ideien artean (**gehienez 50 hitz**). (1 puntu)

Nonbait noizbait horrela

sentitzen bazara,

ez, ez (e)zazula pasa

tripak jaten gaua.

Haserre azaldu:

«hau pasa zait, hara!»

«Horrek mina eman dit»,

«harek egin traba!»

Ezkutatzen baduzu,

okerragoa da.